

9. KOSTUEN EGITURA

Dohako aukera eskaintzen duena low-cost zerbitzua da, hau kostuak bultzatzeko ereduari oinarritzen da, kostuak minimizatuz. Logikoa da bezero kantitate handia izango dugula atal honetan, azken finean laguntza dohainik eskaintzen dugulako, eta asko eskatzen den zerbait da. Zerbitzu ona da, ez hoberena baina arazo askorekin lagunduko du. Premium aukerarekin kostu optimoak izango ditugu ere, gure helburua zerbitzu merkea eskaintzea delako da, ona izanda. Ona izatea ez du esan nahi luxuzkoa denik. Ona da, baina prezioa da oinarritzen garen atala, bezero guztiek eskura dezaten.

Alde batetik, psikologoaren soldata kontuan izanda, 25€ko irabazia izango du sesio bakoitzeko, online nahiz aurrez aurrekoa. Sesio batek ordu eta erdiko gehienezko iraupena izango du, horrela, psikologoak 16€ gutxienez kobratuko ditu lan ordu bakoitzeko. Guztira 10 sesio asteko izango ditugula suposatuta dugu, lehenengo urtea delako.

Psikologoaren lan aseguratari begira, arrisku anitzetarako asegurua eskainiko diogu, 317€-ko kostua duena. Honek, hainbat gertakariei aurre egiten dien asegurua da, bai langilearen segurtasuna bai gure enpresarena; urak eragindako arazoak, suteak, lapurketak eta bestelakoak.

Lokalari dagokionez, Paduleta 55 kalean dagoen bulegoa eskuratuko dugu, Gasteizen; altzariekin, aulkiekin eta bestelakoekin ekipatuta dagoena. 149€-ko hilabeteroko kostua izango du.

Etxe rurala, esan bezala, *Baiolei* etxe rurala hautatu dugu, eta gaueko 45€-ko kostu medioa (40-45 € gau bakoitza, sasoiaren arabera) dauka. Esan bezala, 2 gau hilabetero pasatuko ditugu han; 24 urtero.

Amaitzen joateko, etxe ruralera joandako egunetan janaria erosiko dugu, sukaldatze-ekintza aurrera eramanez ahal izateko. Kalkulatzen dugu 11 pertsonentzako (9 bezero eta 2 monitore) 70€-ko erosketa bat egun batentzako nahikoa izango dela, ondorioz 1.680 €-ko kostua duten elikagaiak eskuratuko ditugu urtean.

Azkenik, aplikazioa igotzeko zerga 20€-koa da, baina aldi bakar batean izango dugun gastua da.

Ordenagailuei eta yoga koltxonetei dagokienez, gure material propioa erabiliko dugu. Psikologoek haien ordenagailuak erabiliko dituzte, antolakuntza hobeago bat izan dezaten eta ohitura hartzearen beharra sahisteko. Koltxonetak ere, bakoitzak etxetik ekartzea beharrezkoa izango da.

KOSTU TOTALAK (KT):

	Prezio unitarioa	Aurreikusitako kantitatea	Kostu totalak
--	------------------	---------------------------	---------------

Psikologoek soldata	25€ sesioko	480 sesio	12.000€
Lan aseguruak	317€	1	317€
Lokalaren alokairua	149€/hilabete	12 hilabete	1.788€
Etxe ruralaren alokairua	45€/gau	24 gau	1.080€
Txangoen janaria	70€/egun	24 egun	1.680€
Aplikazio-zerba	20€	1	20€

Kostu totalak			16.885€
---------------	--	--	---------

Urteko datuak dira.

IRABAZIAK:

DS-KT = 38.304,66€ - 16.885€ = 21.419,66€-ko irabaziak izango ditugu.